

Arantzazu, Gandiaga Topagunea, 2019-10-19

Oteiza, natura, eta laborategia. Hiru ideiak elkarrekin jartzean, behin Oteizari irakurritako zerbait etorri zitzaidan gogora, eta horren inguruan hasi nintzen hitzaldi hau eraikitzen, nire bi lan elkarrekin lotzeko aitzakia eman baitzidan. Arazoa izan zen, behin hitzaldia nahiko aurreratuta nuenean, ez nuela inon topatzen nire gogoan nuen Oteizaren paragrafo hori, eta nire hitzaldirako behar nuela. Ez da teoria bat sostengatzeko ardatz garrantzitsu bat, baina bai hitzaldi hau gustagarriago egiten laguntzen duen makulu bat, eta esaten dudanari adina erreparatzen saiatzen naiz esateko moduari.

Memoriara datorkidan bezala botako dut beraz, neure hitzekin: Cromlecha egiten zutenek, lurrean harriak finkatuz, natura etxekotzen zuten. Naturaren handitasunaren aurrean sentitzen zuten txikitasuna arintzen zuten. Mundu oldarkor baten aurrean seguruago sentitzeko baliabidea zen cromlecha eraikitzea.

Seguruenik, Oteizaren irakurketetatik nik atera dudan ondorio edo ulertzeko modu bat da, nire hitzetara moldatutako Oteiza. Ez dakit etxekotu hitza erabiliko zuen hark, nire hitza dirudi. Hau da etsi-etsian topatu ahal izan dudana esaldirik antzekoena: *el vasco del cromlech neolítico transforma el paisaje, lo reduce a la escala espiritual del hombre*. Etxekotzea eta gizakiaren eskala izpiritualera moldatzea, antzeko zerbait izan daitezke, eta naturaren handitasunaren aurreko txikitasuna arintzeak izango du zerikusirik angustia existentziala arintzearekin. Beraz, horrekin, ontzat eman dut trakeskeria hau.

-1. irudia-

Nire lanaz hitz egingo dut, esan dudanez. Bi lan erakutsiko ditut, eta hau da lehena, minutu bat utziko dizuet irakurtzeko eta ikusteko.

Zulo bat deskribatzen ari naiz ezkerreko posterrean, baina ikusten duzuen bezala, ez dut zuloaren irudirik erakusten, eta nahita nahasgarria izan daitekeen graffiti baten irudia jartzen dut alboan, eskuineko posterrean. Ikusleak irudikatu behar du zuloa, edo erabaki behar du benetan ari naizen edo nik asmatutako gezur polit bat ote den dena. Gaurko azalpen hau nahasgarria izaterik nahi ez dudanez, erakutsi egingo dizuet zuloa.

-2. irudia-

Duela 6 urte; Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako baseliza batzuetan dauden zulo batzuek deitu zidaten arreta, Usurbilgo herrian dago haietariko bat, eta hari buruz ari da hau. Labur azalduta, eta oso modu orokorrean esateko, sima edo leize bertikalen gainean eraikitako baselizak dira. Eraikinek estali egiten dituzte leizeen ahoak, baina bertarako lotura duten irekidura txikiak utzi dira eraikin barruan, eta haietan burua sartzeko eta jarrera horretan kredo bat erreztatzeko tradizioa dute. Bestalde, buruko minen kontrako erremediotzat ere hartzen dituzte.

Burua barruan dugula; ikusi, ez da ezer ikusten, edo ezer ikustekotan, iluntasuna. Aipagarriena soinua da, ikusten ez den hutsune batetik datorren erresonantzia entzuten delako. Ez da hots konkretu bat, isiltasun bat baizik, baina zulo txiki bati ez dagokion erresonantzia duena, isiltasunik existitzen ez dela eta isiltasun guztiak berdinak ez direla badakigunez gero. Eta haizea dabilen egunetan, haizea entzuten da, hura ere espazio txiki bati ez dagokion erresonantzia horretatik pasata.

Zer jatorri duen honek ez dakigu, eta horrek bideak zabal-zabalik uzten ditu espekulaziorako, bakoitzak nahi duena bertan proiektatzeko. Aurkitu ahal izan nuenagatik, Aita Barandiaran izan zen bere garaian zulo hauek ikertu zituena, eta haren hitzak aipatu dituzte ondorengo guztiek. Kristautu

aurretiko garaiko arrasto bat dirudi, haren arabera. Eta baselizen eraikitze datei buruzko ikerketek dagokionez, halako zuloak dituztenak ez dira gutxienez 500 urte baino gazteagoak.

Baselizetara joan eta bertakoekin hitz egin nahi izan nuen, gaur egun gauza zertan den eta zer azalpen ematen dieten jakiteko. Usurbilgo kasu honetan, baseliza zaintzeko ardura duen serorarekin hitz egin nuen, eta bere ustetan estuki lotuta dago gurtzen duten santuaren, San Estebanen, biografiarekin. Martiria izan zen Esteban, buruan harrikatuta erail zutena, eta hargatik irudikatu izan da askotan buru inguruan harriak dituela. Serorarentzat lotura zuzena eta argia dago santuaren bizitzaren eta euren errituaren artean. Zergatik bestela burua? Aipatu nionean San Estebanen bizitzarekiko lotura hori seguruenik ez zela horrela, bazirelako antzeko zuloak beste santu batzuk gurtzen dituzten lekuetan, erantzun zidan orduan seguru bazela beste zulo bat Oiartzunen, han ere San Estebanena baita eliza. Ez zuen bere teoria zapuztu ziezaiotenik nahi, oso garrantzitsua baitzen bere baselizarekiko eta santuarekiko debozioa, ulergarria den bezala.

Neuk, debozio erlijiosorik gabe, nahiz eta elizarekiko nolabaiteko erakarpina badudan, baina hau beranduago azalduko dut; esaten hasi naizen bezala, debozio erlijiosorik gabe, eta artista izaki, neure esperientziatik eta jardunetik interpretatzen nuen zuloa. XX. mendeko artean ikusiak ditugu land-art interbentzioak, gorputz-atalen neurritik egokitutako eskulturak, soinu efektu berezia sortzen duten espazioak. Artelan moduan pertzibitzen nuen, eta esango nuke neuk egin nahi izango nukeen artelana zela gainera, inbidia sentitzen nuela. Zehazki hori bera ez bazen ere, antzeko gauzaren bat egin nahi izango nukeen neronek. Baina, ehundaka urte batzuek aurreratu zitzaizkidan norbaitzu. Dena dela, oso erakargarria zitzaidan, neure egin nahi nuen, eta neure egiteko gogo horretatik, neure sentsibilitatea proiektatzen nuen haren gainera. Hasieratik lotu nuen oso gustuko dudana Bruce Naumanen 70. hamarkadako lan batekin: *Audio-Video Underground Chamber*. Lan horretan, zementuzko kutxa batean sartu zituen lanpara bat, mikrofono bat eta bideo-kamera bat, eta Anberesko galeria bateko lorategian lurperatu zuen kutxa hori. Handik metro batzuetara, galerian, monitore batean ikusi eta entzun zitekeen kutxa horren zuzeneko irudia eta soinua. Pentsatuko duzuen bezala, ez zen ezer gertatzen, hutsune baten zuzeneko erretransmisioa zen. Lan horren indarra, ene interpretaziotik, ezkutukoa bistaratzean datza. Espazio hori, egon, hor zegoen, metro gutxi batzuetara, lurra besterik ez dagoela imajinatuko genukeen lekuan. Eta pentsa dezakegu gertu ditugula beste leku eta gertaera ezkutu asko, haien berri eduki gabe, eta ezer gertatzen ez dela dirudienean ere, ezer ez dagoela egiazki geldi. Baselizetako zuloen kasuan, ez zaigu irudirik heltzen, eta soinuak ematen digu barrunbe baten nolakotasunen berri. Zirritu batetik heltzen zaigu soinu hori, eta pentsa daiteke geure gorputza sartzen ez den zirritu kontaezinez jositako sistema osoa dagoela han behean; zenbat kilometro, eta zenbat ur korrante, haize korrante, saguzar, zomorro; iluntasun osoan. Halako zulo bat duten beste baseliza batean, apez batek honako irakurketa egiten zuen: txarkeriak ezkututzen dira azpialde horretan, deabruak ere badabiltza hor nonbait, eta irekidura hori utzi da ahantz ez dezagun zer mundu ilun dagoen hor, eta geure fedearen esku dagoela hura mendean hartzea. Halako pentsaerak asko interesatuta ere, beste zerbait zen hasiera batean gehien erakartzen ninduen.

Oteizak ukatu egin nahi zion cromlechari inongo erritu edo zerbitzurik bazuenik, beste erabilpenik gabeko arte objektu huts bat ikusi nahi zuen, nahiz eta indusketetan agertutako hezur erreek kontrakoa adierazi. Jesus Altuna eta Pablo Areso arkeologoak, indusketa baten ondoren idatzitako txostenean, kexu ziren Oteizak ia exijitu ere egiten omen ziela eta indusketetan hezurrik ez topatzeko, eta zer egingo zioten ba haien hezurak ateratzen baziren. Oteizak, bere intuizioaren emariak zer ziotson, huraxe hartu eta erabat sinetsi eta predikatzen zuen azken muturreraino, eta ez ziezaiola arkeologoak cromlechen inguruko bere ikuspegia zapuztu, ezta adibidez hizkuntzalariak ere bere etimologia ikerketak. Eta nik, zuloen ikuskera erlijiosoa eta sendagarria arbuia ez, baina albo batera uzten nuen hasiera hartan. Ikusi duzue erakutsi dudana lan horretarako deskribapen formala besterik ez nuela egin. Jatorrian zergatik egin zuten jakiterik ez dagoenez, nahieran interpretatzeko askeago egiten gaitu horrek nolabait. Hala ere, uste dut ez garela okertuko gutxienez

gutxienik esaten badugu bere momentuan natura etxekotzeko modu bat izan zela, munduaren handitasuna kontrolatzeko eragiketa bat.

Esan dut, lan honetarako deskribapen formala besterik ez nuela egin. Gai erlijiosoetan, errituetan, sineskerietan, pentsamendu magikoetan sartzeari hurrengo pausu naturala izan zen, prozesuaren barruan modu organikoan etorri zena, lan batek beti eramaten bainau hurrengora. Halakoek nekazal inguruetara eramanez ninduten. Ez inguru urbanoetan mito eta sineskeriarik ez dagoelako, baina orain azaltzeko denborarik ez dudanez arrazoiengatik, baserri giro horretan zentratu nintzen. Eta lan batek hurrengora eramaten bainau, nekazal paisaien errepresentazioekin aritu naiz lanean aurretan.

-3, 4 eta 5. irudiak-

Irudi hauek udan Bilboko Carreras Mugica galerian egindako erakusketa batekoak dira. Beste artista batzuen margolanak bildu eta elkar josiz osatutako konposizioak dira. Bigarren eskuko azokatan lortzen nituen margolanak, jendeak etxetik botatutako hondakinetan, eta aurkitutako margolanen artean landa paisaiak ziren gehiengoak. Horrela gertatu zait bai hemen, Euskal Herrian, eta bai azkenaldian bizi izan naizen Belgikan ere. Bigarren maila batean datoz erretratuak eta bestelako irudiak. Beraz badago zerbait esanguratsua hor, denbora askoan landa paisaietarako joera izan baitugu etxea apaintzerakoan.

“Mundu gabeko paisaia” jarri nien izenburu, anbigua eta irakurketa asko dituen izenburua izan daitekeelako. Izan daiteke errealitatean existitzen ez diren paisaia asmatuak direlako, munduaren alderdi honetan dagoeneko galdu den edo galbidean dagoen mundu bat erakusten dutelako, margolariaren begiradak paisaia eder bat besterik ikusten ez duelako, margolariak kanpotiko exotismoz, erromantizismoz eta inozentziaz ikusten duelako eta bertako bizia ezagutzen ez duelako, eta abar. Irakurketa ezberdinak egin daitezke.

Ezer gertatzen ez dela dirudienean ere, ezer ez dago egiazki geldi, dena dago zantzuz eta arrastoz josita. Baserrikoa denak badaki, eta ni ez naiz, baina baserrikoa denak badaki gauzak ez direla berdin hazten ilgoran eta ilbeheran, informazioa dakarrela erleen mugimenduak, zizareenak, txorienak, hodeienak, belarraren koloreak... Datu asko daude edonon irakurtzen jakinez gero, eta haiek kontutan hartu beharra dago baserrian, haien arabera planak eta estrategiak aldatzeko. Margolariak, seguruenik, leku lasai, isil eta eder bat ikusiko du, baserriarrak informazioz jositako eremu bat ikusten duen lekuan, eta harreman gertukoegia du guzti hori liluraz edo mirespenez ikusteko, distantzia behar baita horretarako. Ni ere margolariaren begiradatik ari naiz, hirikumea naizenez gero, oraintxe munduko biztanleriaren erdia baino gehiago den bezala, eta gero eta jende gehiago bezala, hazten eta hazten ari delako inguru urbanoetako biztanleria. Izan badira oraindik landa eremuak, baina hemen behintzat, lehengo laborantza ia erabat ordezkatu du monolaborantzak, hau da, irizpide industrialak eta aurrez prestatutako gidoiak jarraitzen dituen eskala handiko laborantzak. Joera horrek zenbat iraun dezakeenaren, jasangarritasunaren eta etorkizunaren gaia dakar horrek, eta horri buruz hitz egin nahi dut orain.

Orain, badirudi ez dugula etorkizun onik irudikatzen, zail dela hurrengo hamarkadetikiko ikuspegi baikorra izatea. Orokorrean, inguruko jendearen iritzietan, azkenaldian argitaratu diren eta irakurri ditudan saiakera batzuetan, eta baita mass media batzuen ekoizpenetan ere, ikuskera ezkorrek nabaritzen ditut, batzuetan etsipena eta inpotentzia ere bai. Arriskuen artean, batetik legoke etengabe haztearen balizko ezintasuna, hazkuntza horrek azkenean leher egiteko aukera, iritzi ezberdinak sor ditzakeena, batzuen ustez leherketa hori laster izango baita seguru, eta beste batzuen ustez ez du lehertzeko arriskurik, jasangarritasuna lortzea dela kontua eta abar, tartean egon litezkeen beste ikuspuntu guztiekin batera. Eta bestetik legoke, hazkuntza horren ondorio den eta gainera datorkigun klima aldaketa, orain klima larrialdia, eta horretan gutxi batzuek ez beste inork ez du zalantzarik egingo, badatorrela. Ez dakigu nork esana den errazago imajinatzen dugula

munduaren amaiera kapitalismoarena baino, batzuen ustez Bifok, besteren ustez Mark Fisherrek. Progresoak oparotasuna zekarrela ulertzen zen lehen, eta orain mehatxu bihurtu da oparotasuna, edo neurrigabeko oparotasuna. Baumanek “Retrotopia” kontzeptua sortu zuen haren azken libururako, aurrera begirakoa izan ordez iraganerantz proiektatzen den utopia alegia, aurrerantz halakorik egin ezin dela dirudielako. Eta atzera begiratuta, industrializazio aurreko gizartea topatzen dugu. Frantzian azken urteetan Kolapsologia deituriko mugimendua zabaldu da, eta Euskal Herrian ere badugu kolapsonauta talde bat. Berandu gabe etorriko den kolapso baten atarian gaudela uste dute, eta horren aurreko euren erantzuna oinarrizkoenera itzultzea da; supermerkatuak, kontu korronterik, petroliorik, argindar sistemarik gabe bizitzeko prestatzea.

Günther Andersek duela mende erdi esan zuen gizakia txiki geratu dela bere garapen teknikoaren aurrean, eta ez dela gauza sentitzeko zein den garatu duen guztiaren eskala alimalekoa. Garapen tekniko oso azkarraren arriskuez eta bonba atomikoaz ari zen hura, batez ere bonba atomikoaz, gerra hotzaren garaiak zirelako orduan. Orain beharbada ez dugu gerra edo gatazka konkretu batekiko hainbeste beldur, lausoagoa bihurtu da beldurra, eta desastretik imajinatzekotan, pixkanakako gainbehera bat irudikatzen dugu, ez kolpe bortitz batez gertatuko den zerbait. Baina berdin esan dezakegu oraindik, txiki geratu garela geure garapen teknikoaren ondorioen aurrean. Cromlecharen egileek naturaren handitasuna etxekotu bazezaketen, orain esan daiteke erabat etxekotu dugula, eta txikiak garela baina ez naturaren aurrean, geure ekintzen aurrean baizik.

Jositako margolanekin egindako lan batzuk erakutsi ditut, eta hortik, etorkizuneko desastre posibleei buruz hitz egitera joan naiz. Salto hori zergatik eman dudan argitu nahi dut. Berez, lan horiek ikusita, ez dut uste inork edo askok lotura hori egingo luketenik, baina normalean erakusketa bakoitzarekin eskatzen zaigun testurako, gazteleraz “hoja de sala” esaten zaion horretarako, lotura hori egitea pentsatu nuen, oraintxe hemen zuen aurrean egin dudan lotura hori, beste geruza hori ere erakusketan sartzeko. Testu hori irakurtzea aukerazkoa da, batzuek ezer irakurri gabe bisitatuko zuten erakusketa, eta beste batzuek testua irakurtzeko jakin-mina izango zuten. Jakin-min hori izan zutenei, geruza gehigarri hori eman nahi izan nien.

Etorkizunarekiko kezka hau nire lanera ekartzea interesatu bazait, izan da, lehen-lehenik, nire eguneroko bizitzako kezken artean dagoelako, larritasuna sortzen didalako. Eta bestetik, mehatxu giroa gustatu egiten zaidalako. Nire inguruan ikusten dut ez naizela bakarra, iruditzen baitzait orokorrean gainean dugun mehatxu horrekiko geure jarrerak bi aurpegi dituela; kezka edo beldurra batetik, eta lilura edo erakarpena ere bai, bestetik. Etxean telesailak ikustea hain boladan dagoen honetan, asko dira telesail eta film distopikoak. Eta erakusten dizkigute desertu bihurtu diren paisaiak, ur eskasia, biziraupenerako lehia, zabor pilaketak, eta abar, eta abar, halakoak barra-barra. Badu bere morboa desastreari pantaila bidez begiratzeak.

Puntu honetara helduta, argigarria izan daiteke Kantek estetikari buruz esandako zerbait berreskuratzea. Sublimea kontzeptua, minaren eta plazeraren arteko nahasketa batean ematen den anbiguotasun handiko sentimendu modura definitu zuen Kantek. Ekaitza lehertzen denean, sute baten lekuko garenean, edo ozeanoaren zabala ikusten dugunean sortuko litzateke, besteak beste. Horietan denetan, geure gorputza munduaren aurrean zeinen txikia den sentitzen dugu, eta ulertzen dugu zeinen erraz desegingo gintukeen hondamendi natural batek. Gureak egingo luke tximista batek joz gero, itsasoaren erdian galduko bagina, edo lurjauzi batek harrapatuko bagintu. Horregatik, Kantek dio, paisaia eta fenomeno horiek berez duten arriskugarritasunaren aurrean sortzen zaigun beldur edo angustiarri buelta ematen diogula plazer sentimendu batez, eta plazer hori, beldur edo angustiak bustita, plazer are biziagoa bilakatzen dela. Beti ere, arrisku bizirik edo larritasun berehalakorik ez badago gertatzen da hori. Alegia, sute bat ikusten badugu, segurtasun distantzia batetik ikusten dugunean, edo ozeanoaren erdian galdua egon baino, hori gertatzearen posibilidadateaz pentsatzen ari garenean. Min bat baino, giro mehatxagarri bat litzateke hortaz, hauskortasun sentsazioa.

Klima larrialdiak edo gizartearen kolapso posibleak giro mehatxagarria sortzen dute, eta guk behintzat oraindik segurtasun distantzia batetik ikus dezakegu, ez dugulako hondamendia gaurko edo biharko espero, hemen behintzat, munduko alde honetan. Jakina badira munduan problema handi asko, baina hemen momentuz ez dugu problema handirik beste batzuekin alderatuz. Gaur bertan hondamendi bat gertatuko balitz, batere graziarik ez liguke egingo, noski, baina oker oso handiren bat iritsi arte tartea badugula irudikatzen dugu oraindik, eta gainera, lehenago esan bezala, pixkanakako gainbehera da orain imajinatzen dugun desastrea, pixkanakakoa eta ez kolpekoa, eta beraz, hasiera puntu nabarmenik gabekoa.

Neuk ere anbiguotasun hori nabari dut nire barruan, kezka eta erakarpena, eta horrek eramaten nau kontu hau nire lanera ekartzera. Lilura hutsa sortuko balit, ez litzateke interesgarria lilurak mozkortuta lan egitea; dena eder, dena on. Kezka, beldurra, arbuioa edo kontrakotasuna sentitzea ere ez litzateke berez nahikoa interesgarria izango arterako langaitzat aukeratzeko. Kontra ekiteko bai, baina ez artearen laborategitik pasatzeko. Esango nuke horretarako beste sentimendu batzuk piztu behar dizkidala. Kontrakotasuna eta erakarpena sortzen didaten gauzekin lan egiten dut gutxi gorabehera beti, eta horregatik beragatik interesatzen zaizkit eliza eta erlijiotasuna ere, hitzaldi honen hasierako zatira itzuliz, baina hori beste kontu bat da.

Badirudi azkenaldian ugariak direla klima aldaketari edo ekologiar buruzko artelanak, modan jarri omen dela, eta egia da hor dagoela esaterako oraintxe gertatzen ari den Veneziako Bienala irabazi duen pabilioi lituaniarren adibidea, aurtengo Istanbulgo bienal osoa ere gai horretan ardaiztu da, eta beste adibide asko daude. Joera horren inguruan entzun izan dut, kontzientzia pizteko helburua duela, eta helburu oso noblea da, denon onerako egiten den zerbait. Noblea ez dirudiena da, etorkizunean etor daitekeen desastre batek liluratzen nauela esatea. Kontzientzia pizteko beharra, badagoela uste dut, eta nire lanaren kasuan, esango nuke badagoela helburu hori ere, beste motibazio askoren artean, baina ez da lehen-lehena. Zerbaitekiko kontrakotasuna, kasu honetan aldaketa klimatikoaren aurka egitea, ez zaidalako nahikoa arrazoi artera ekartzeko, oraintxe esan dudana bezala.

Lan egiteko motibazio nagusia neurekikoa da, neuk nahi ditut gauza batzuk ulertu, garatu, nire buruarekiko kontuak atera. Kezkatzen eta erakartzen nauten arazoekiko edo obsesio partikularrekiko kontuak ateratzen ditut, eta kezka eta obsesio horiek izan daitezke baserriko bizitza edo klima aldaketa bezalako zerbait, edo egurra eta kartoiaren arteko harremana, hori ere bai. Maila berean daude, zopa berean nahastuta. Lan egitea eraldatzailea da neuretzat, bidean ikasi egiten dut, gauzen inguruko nire ikuskerak aldatzen ditut, etxekotu egiten ditut, osoago sentitzen naiz, eta gauzak gaintetik kentzeko lan egiten dudala sentitzen dut. Zerbait bukatu eta hurrengora pasa naiteke, gaintetik kendu nahi dudana hurrengo gauzara. Eta gaintetik kentzeko, oso beharrezkoa da erakustea. Gertuko konplize batzuk eta publiko minimo bat ezinbestekoak dira, nahiz eta nagusiki neure buruarentzat lan egiten dudala sentitu. Batez ere besterentzat lan egingo banu, besteen kontzientzia piztea nire lehen helburua balitz, adibidez, oso esperientzia frustragarria izango litzatekeela uste dut, geure oihartzuna ia ezdeusa delako. Oteizak bere garaian bazuen nahikoa itzal, bi arkeologok indusketa baten ondorengo txostenean aipa zezaten adinakoa. Baina gaurko artista batek gizartearen duen eragina ia ezerezean geratzen da, eta artistena bezala beste askorena ere. Inoiz baino artista gehiago gara, eta inoiz baino zientzialari gehiago, musikari gehiago, tesi egile gehiago, idazle gehiago, zinegile gehiago... Egileak asko gara, eta hartzaileak falta izaten dira. Faktore askoren elkargurutzaketak sortutako egungo egoera orokorra da. Gehienetan, inguruko zirkulu txikietan partekatzen dugu egindakoa, eta zirkulu txiki horietan agortzen dira. Ikusgarritasun handiagoko lekuren batean erakutsi ahal izanez gero ere, ez dute zirkulua izugarri handitzen, eta benetan ikusgarritasun handia ematen duen nonbaitera heldutakoan, zaila da hor luzaz jarraitzea. Artisten artean badago konplizitatea eta laguntza, baina guztiz kontrakoa ere bai, ez dira gutxi besteak konpetentzia gisa ikusten dituztenak, edo botere harremanak ezarri nahi dituztenak.

Panorama orokor horren aurrean, neuretzako darabildan ustea da, neurea ahalik eta modu erradikalenean eta neuretzako modu erabilgarrienean egiteak duela zentzua. Eta hala izango da, izatekotan, besterentzat ere baliagarria. Egileak asko bagara, eta hartzaileak falta badira, egiletasun horrek ahalik eta zentzu gehien izan dezala egilearentzat. Honekin ez dut esan nahi, kontzientziak pizteko helburua lehen-lehenik jartzen duen norbaiti sinesten ez diodanik edo oker dabilela uste dudarik, errazegi erortzen gara halako tentaldietan.

Eskerrik asko.